

## BALIABIDEAK

Argi dugu bada, funtsezko baliabideak ezinbestekoak direla enpresa batek aurrera egin ahal izateko. Besteak beste, honen bitartez bezeroarengana iristeko, harekiko harremana mantentzeko eta diru sarrerek lortzen ditugulako.

Baliabide fisikoei dagokienez, ez dugu produktuak fabrikatzeko instalaziorik beharko, hori egongo duen enpresa batekin elkarlanean baigaude. Bestalde, ez dugu bulegoen beharrik izango pultserak pertsonalizatuak diren horretan progesiboki eskatzen joango garelako eta behin gure *Correoseko* sekziora ailegatu denean, gure banatzaileek hauek haien jabeen etxeetara eramango dituzte bizikleta batzuen bitartez. Beraz, beharko ditugun baliabide fisiko bakarrak bizikletak izango dira.

Bigarrenik, baliabide intelektualak alde batera utziko ditugu, haien beharrik ez dugulako.

Hirugarrenik erabiliko dugun giza-baliabidea dago: gaitasun komertziala. Gure produktua sartzeko erabiliko dugun publizitateak osatzen du, eta hone bitartez erosleen kantitatea handitzea eragingo du.

Amaitzeko finantza baliabideak erabili beharko ditugu, besteak beste; kreditu-lineak. Honen beharra ezinbestekoa baita interneten bidez salerosketak egiteko. Bestalde, gure langileen soldatak ordaintzeko.